

<p align="center">IKASGAIAREN izena 1.3. Ikus-entzunezko hedabideen historia</p>	<p align="center">Kreditoak 6 ECTS. OINARRIZKO HEZKUNTZA</p>
<p>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> o Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. o Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa Errealitatea eta bertan gertatzen diren gertaerak irakurtzen eta interpretatzen jakin ikuspegi kritiko eta autokritiko batetik, beraren konplexutasunak eta bertan parte hartzen duten faktore guztiak kontuan hartuz, estereotipoak eta klixek aztertuz, bereiziz eta gaindituz; eta errealitatearen ikuspegi etikoa garatu, aniztasunaren aurrean sentiberatasun berezia garatuz, gizarte harremanak hobetzeko konpromisoa helburua hartuta. - Gaitasun espezifikoak: <p>-Ezagupenak:</p> <p>1.1. Argazkigintza, zinema, irrati eta telebistaren historia eta bilakaera, batetik, eta ikus-entzunezko bitarteko horiek denboran zehar izan duten garrantzi sozial eta kulturala, bestetik, beraien proposamen estetiko eta industrialen bitartez ezagutzea. Aldi berean, teknologiaren eta industriaren bilakaera ikus-entzunezko hizkuntzarekin lotzea, eta kontuan hartzea bai ikus-entzunezko emanaldien kontzeptu teoriko-praktikoak, bai kontzeptuen komunikazio-sistemak, transmisio-sistemak eta haien errealitateak, bai eta irudiaren (hitzaren zentzu osoan) zeinu edo kodigoen interpretazio eta azterketa zuzena erraz dezaketen balio sinboliko eta kultural oinarrizkoak ere.</p> <p>1.6. Munduaren egoera ezagutzea, hala nola azken urteotan izan duen bilakaera historikoaren berri jakitea, batez ere Europako, Mediterraneoko, Ameriketako eta Asiako gizarteena, bai eta haien oinarrizko parametroak (politikoak, ekonomikoak eta kulturalak) ulertzea ere.</p> <p>-Treibetasunak:</p> <p>2.12. Ikus-entzunezko kontakizunak aztertze gaitasuna, ikus-entzunezko obren azterketaren oinarrizko parametroak aintzat hartuz, eta ikono bidezko mezuak garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta produktutzat hartuz.</p> <p>2.13. Gizartearen bilakaera historikoa, soziologikoa, ekonomikoa eta kulturala interpretatzeko gaitasuna.</p>	
<p>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari. Ikasgai honek marko historiko zabalago batean kokatzen du ikus-entzunezko hedabideen bilakaera, komunikazioen historia orokorra erreferentziatzen hartuta. Ikasleak ikus-entzunezko hedabideen garapena ezagutuko du, alderdi teknologiko, estetiko eta edukizkoetatik begiratuta, eta arreta berezia ipiniko du hedabideen eta gizartearen arteko harremanetan. Hori dela eta, ikasgaia profil profesional hauekin lotzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezkoen zuzendaria, gidoilaria eta errealizadorea. - Ikus-entzunezkoen ekoizlea eta kudeatzailea. <p>Ikerlaria, irakaslea eta ikus-entzunezko ikasketetan aditua.</p>	
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.</p> <ul style="list-style-type: none"> o Metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa: tailerrak, praktikak, tutoretzak. o Elkarlanean oinarritutako metodologia. 	
<p>Hezkuntza-jarduerak. Jarduera presentzialak (%40):</p>	

- ✓ Eskola magistralak.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Eskola praktikoak.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Tailerrak.

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa.

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

1. Ebaluazio jarraitua eta prozesu-ebaluazioa.
2. Praktikak egitea, azken proiektua helburu hartuta.
3. Banakako eta taldekako lanen kalitatea.
- 4.** Elkarlanean egindako azken proiektua emaitza gisa.

Edukien laburpena

- Hedabideen historia laburra eta testuinguruan kokatzea: prentsa, argazkigintza (1.2. ikasgaiari zabalago), irratia, zinema (2.8. ikasgaiari zabalago), telebista, komikia, internet eta multimedia-hedabide berriak.
- Haririk gabeko telegrafiatik uhin hertziarretara.
- Irratia zezelka ari. Lehen emanaldiak.
- Telebistaren sorrera.
- Satelite bidezko lehen emanaldiak.
- Desregulazio eta globalizazio prozesuak.
- Aro digitala.